



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 9koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, garai batean Sestaoko (Bizkaia) La Naval (Construcciones Navales del Norte) zegoen lurzatiari dagozkion lurzoruaren kalitatearen ikerketa-azterlanak jendaurrean jartzeko.

RESOLUCIÓN de 9 de marzo de 2023, del Director de Calidad Ambiental y Economía Circular, por la que se acuerda someter a información pública los estudios de investigación de la calidad del suelo correspondientes a la parcela donde se ubicaba antiguamente La Naval (Construcciones Navales del Norte), en el término municipal de Sestao (Bizkaia).

URLAU PROYECTOS Y SERVICIOS S.L. enpresak hasiera eman dio Sestaoko udal-mugartean (Bizkaia) garai batean La Naval kokatuta zegoen lurzatiaren zati bati dagokion lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako espedienteari, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean eta Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritz.

Resultando que la empresa URLAU PROYECTOS Y SERVICIOS S.L. ha dado inicio al expediente para la declaración de calidad del suelo correspondiente a parte de la parcela donde se ubicaba antiguamente La Naval, en el término municipal de Sestao (Bizkaia), de conformidad con lo dispuesto en la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo y en el Decreto 209/2019, de 26 de diciembre, por el que se desarrolla la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo.

Espediente horretan jasota daude lurzoruaren kalitatea ikertzeko azterlanak, eraispen-proiektua, berreskuratze-plana eta hondakinak kudeatzeko txostenak, egiaztatutako erakunde batek eginak, ekainaren

Resultando que en dicho expediente constan los estudios de investigación de la calidad del suelo, el proyecto de demolición, el plan de recuperación y los informes de gestión de residuos elaborados por entidad acreditada, de



25eko 4/2015 Legearen II. kapituluaren ezarritakoaren arabera.

conformidad con lo que se establece en el Capítulo II de la Ley 4/2015, de 25 de junio.

Egindako ikerketan egiaztatu denez, eremu batzuetan arriskuen analisisan arriskua onartezina dela ondorioztatu da. Horren ondorioz, aipatutako 25eko 4/2015 Legearen 33. artikulua xedatutakoa bete behar da. Artikulu horrek honako hau adierazten du: ingurumen-organismoak jendaurreko informazioaren izapidea abiaraziko du baldin eta arriskuen analisisan etorkizunean eramango den erabilerarako arriskua onartezina dela ondorioztatzen bada.

Considerando que de la investigación realizada se deriva que en determinadas zonas el análisis de riesgos concluye que el riesgo es inadmisibile para el uso previsto, y que, por tanto, para las mismas sería de aplicación el artículo 33 de la mencionada Ley 4/2015, de 25 de junio, que establece que el órgano ambiental procederá a someter los estudios de investigación de la calidad del suelo a un trámite de información pública cuando, entre otros supuestos, el análisis de riesgos concluya que el riesgo es inadmisibile.

Organo honi dagokio ebazpen hau emateko eskumena, honako hauek ezarritakoarekin bat: Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak ezarritakoarekin bat; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

Considerando que, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, y en el Decreto 68/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, corresponde a este órgano la competencia para la emisión de la presente Resolución.

IKUSIRIK 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa;

VISTOS la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, el Decreto



209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena; 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinei eta Ekonomia Zirkularrerako Lurzoru Kutsatuei buruzkoa; 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, Lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpideak eta estandarrak ezartzen dituena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta oro har aplikatu beharreko gainerako araudia.

209/2019, de 26 de diciembre por el que se desarrolla la Ley 4/2015, de 25 de junio, la Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular, el Real Decreto 9/2005, de 14 de enero, por el que se establece la relación de actividades potencialmente contaminantes del suelo y los criterios y estándares para la declaración de suelos contaminados, la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y demás normativa de general aplicación.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izateko, jendaurrean jartzea 15 eguneko epean, iragarkia Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa sartu eta hurrengo egunetik hasita, honako azterlan hauek: lurzoruaren kalitatea ikertzeko azterlanak, eraispen-proiektua, leheneratze-plana eta hondakinak kudeatzeko txostenak, garai batean Sestaoko (Bizkaia) La Naval zegoen lurzatiari dagozkionak.

RESUELVO:

Primero.- Someter, en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimen oportunas, al trámite de información pública por un periodo de 15 días, a contar desde el día siguiente al de la fecha de inserción del correspondiente anuncio en la sede electrónica del Gobierno Vasco, los estudios de investigación de la calidad del suelo, el proyecto de demolición, el plan de recuperación y los informes de gestión de residuos correspondientes a la parcela donde se ubicaba antiguamente La Naval, en el término municipal de Sestao (Bizkaia).

Bigarrena.- Aurreko artikuluan ezarritakoa betetzeko, dokumentazioa Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan egongo da eskuragarri (Donostia kalea 1, 2. solairua, Vitoria-Gasteiz).

Segundo.- A efectos de cumplimentar lo previsto en el artículo anterior la documentación se encontrará disponible en la sede de la Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, calle Donostia-San Sebastián, 1 - 2.^a planta, en Vitoria-Gasteiz.

Halaber, dokumentazioa herritarrek errazago eskura dezaten, espedientea Sestaoko udalari bidaliko zaio, jendaurreko informazio aldian espedientea erakutsi dezan.

Asimismo, en orden a facilitar el acceso de los ciudadanos y ciudadanas a la documentación, el expediente se remitirá al Ayuntamiento de Sestao para su exposición durante el período de información pública.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 9an

Vitoria-Gasteiz, a 9 de marzo de 2023

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma

DIRECTOR DE CALIDAD AMBIENTAL Y ECONOMIA CIRCULAR
INGURUMEN KALITATEAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ZUZENDARIA

Izpta./Fdo.: Javier Agirre Orcajo

(Elektronikoki sinatua / Firmado electrónicamente)